

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak asteazken honetan egingo du kirol-federazioentzako diru-laguntzen lehen ordainketa

700.000 euro inguru ordainduko ditu, 2014an 43 elkarteri emango dien 2,2 milioi euroko laguntzatik

Martes, 29 de julio de 2014

Nafarroako Gobernuak asteazken honetan, uztailak 30, ordainduko die Foru Komunitateko kirol-federazioei urteko lehen lauhilekoari dagokion diru-laguntza. 697.802 euro ordainduko dizkie guztira funtzionamenduen eta kudeaketaren, teknifikazio-zentroen, selekzioen jantzien eta ekipamenduen gastuei aurre egiten laguntzeko.



Foru Gobernuak aurten 43 kirol-federazioei egingo dizkien hiru ordainketetatik lehena da. Federazioek 2.194.723 euro jasoko dituzte guztira.

Lehen ordainketan, 7.722,53 euro jasoko ditu urpeko jardueren federazioak; 10.195,90 euro xakekoak; 11.349,67 euro atletismokoak; 11.689,22 euro automobilgintzakoak; 11.397,23 euro badmintonekoak; 69.743,92 euro saskibaloikoak; 23.732,23 euro eskubaloikoak, eta 13.803,55 euro beisbol eta sofbolekoak.

Bestalde, 13.822,87 euroko diru-laguntza jasoko du txirrindularitzako federazioak; 19.192,42 euro kirol egokituetakoak; 2.574,13 euro aire-kiroletakoak; 24.231,70 euro mendi eta eskaladakoak; 4.711,44 euro eskrimakoak; 3.379,18 euro espeleologiakoak; 64.411,38 euro futbolekoak; 11.250,59 euro gimnasiakoak, eta 21.489,71 euro golfekoak.

Halterofilia (4.413,88 euro), herri kirolak (2.819,75 euro), hipika (8.778,64 euro), judo eta erlazonatutako kirolak (38.356,09 euro), karate (23.337,03 euro), kick-boxinga (5.836,26 euro), motoziklismoa (9.248,60 euro), igeriketa (33.793,38 euro), padela (18.358,25 euro), patinajea (11.570,80 euro), pilota (87.369 euro) eta arrantza (1.625,96 euro) jarduerenak dira diru-laguntza jasoko duten beste federazio batzuk.

Azkenik, honako jarduera hauen federazioek ere jasoko dituzte laguntzak: piraguismoa (5.677,53 euro), arrauna (4.996,58 euro), errugbia (21.953,03 euro), salbamendua eta sorospena (4.990,61 euro), taekwondo (31.110,94 euro), tenisa (4.360,72 euro), mahai-tenisa

(7.975,87 euro), arku-tiroa (10.837,69 euro), tiro olimpikoa (13.803,10 euro), triatloia (9.104,46 euro), bela (5.799,11 euro) eta boleibola (6.987,31 euro). Ehizako eta neguko kiroletako federazioek laster jasoko dute dagokien diru-laguntza.